

DANIEL

eta parke misterioitsua
y el parque misterioso

Testuak · Textos:

Ana García de Motiloa

Irdiak · Ilustraciones:

Raquel Gonzalo





Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jaurlaritzaren *Bibliotekak* sarearen katalogoan aurki daiteke: <http://www.bibliotekak.euskadi.net/WebOpac>

Un registro bibliográfico de esta obra puede consultarse en el catálogo de la red *Bibliotekak* del Gobierno Vasco: <http://www.bibliotekak.euskadi.net/WebOpa>

Argitaraldia / Edición: 1.a, 2017ko otsaila / 1ª, febrero 2017

Ale kopurua / Tirada: 500 ale / ejemplares

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa

Hezkuntza Saila

Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco

Departamento de Educación

Argitaratzailea / Edita:

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

C/ Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz

Dokumentazioa eta gainbegiratzea / Documentación y supervisión:

María Pilar Botella. Neuropediatra. HUA Txagorritxu

Itzulpenak / Traducciones:

Euskara / Euskera: Pako Eizagirre

Marrazkiak / Ilustraciones: Raquel Gonzalo

Diseinu grafikoa / Diseño gráfico: Maialen Gonzalo

Inprimaketa / Impresión: Gráficas Dosbi, S.L.

Lege gordailua / Depósito legal: VI 5-2017




Badago gida metodologiko bat ipuinaren helburu, eduki eta jarduerekin.

Existe una guía didáctica con los objetivos, contenidos
y actividades para trabajar el cuento.

Gure ikasgelaren blogaren bidez eskura daiteke:

Se puede acceder a través del blog de aula:

www.hospitalandia.blogspot.com



EPILEPSIA duten ume guztientzat

Para todos los niños y niñas que tienen EPILEPSIA



Daniel kolore berdeko hiri batean bizi zen. Hiriari “Greencapital” deitzen zioten; izan ere, parke eta berdegune ugari zituen, eta eraztun berde erraldoi batek inguratzen zuen hiria.

Mutiko oso jatorra zen Daniel. Bi panpina zituen, Patxapa eta Kiniko, eta sarritan hitz egiten zuen haiekin.

Patxapa behatzaile aparta zen, eta Kiniko despistatua oso.

Daniel era un niño muy simpático que vivía en una ciudad de color verde, por eso la llamaban “green capital”, porque tenía muchos parques y zonas verdes, incluso estaba rodeada por una especie de anillo gigante que también era verde.

Daniel tenía dos muñecos con los que hablaba a menudo: Pachapa y Kiniko.

Pachapa era muy observador y Kiniko muy despistado.



Udazkeneko egun batean, Daniel apur bat triste itzuli zen ikastetxetik.

Patxapak berehala igarri zion, eta baita galdetu ere:

—Zer gertatzen zaio kolorerik gabeko ortzadarra dirudien zure aho horri?

Danielek kezka aurpegiarekin erantzun zion:


—Nire lagunik maiteena, Josetxo, erori egin da ikastetxeko patioan. Zurrun jarri da, luze-luze etzanda, eta dardarka hasi zaio gorputza, hotzez ikaraturik balego bezala. Nire lagunak eta ni asko izutu gara. Une horretan, irakasle bat guregana azkar-azkar hurbildu, eta saiheska etzanda jarri du Josetxo. Arnasa sakon hartzeko eskatu digu, LASAITU gaitezen.

Un día de otoño, Daniel volvió del colegio un poco triste. Pachapa se dio cuenta y le preguntó:

—¿Qué le pasa a tu boca que parece un arcoíris sin colores?

Daniel le respondió con preocupación:

—Mi mejor amigo, Jose, se ha caído en el patio del colegio, se ha puesto rígido, o sea muy estirado, y su cuerpo ha empezado a temblar como si tiritara de frío. Los que estábamos con él nos hemos asustado mucho. En ese momento, una profesora se ha acercado rápidamente y ha colocado a Jose de costado. Nos ha pedido que respiráramos profundamente para CALMARNOS.



Adi-adi entzun zion Patxapak. Ondoren, jarri zion eskua sorbaldan Danieli, eta honela hitz egin zion:


—Ikertu beharra daukagu zergatik gertatu zaion gertatu zaiona zure lagun Josetxori. Bihar parke misteriotsura joango gara, eta gure lagun zuhaitz jakintsuari galdetuko diogu.

Leku hari parke misteriotsu esaten zioten, bazirelako bertan zuhaitzak, hizketan jakiteaz aparte, musikariak zirenak. Ilargi betea zen gauetan, urmael baten inguruan biltzen ziren zuhaitz haiek, eta era guztietako instrumentuak jotzen zituzten. Hain melodia ederrak sortzen zituzten, bertan bizi ziren koloretako arrainak dantzan jartzen ziren. Ez zuen ulertzen inork misterio hura.

Después de escuchar atentamente a Daniel, Pachapa le puso una mano sobre su hombro y le dijo:

—Tenemos que investigar para saber por qué le ha pasado eso a tu amigo Jose. Mañana iremos al parque misterioso y se lo preguntaremos a nuestro amigo el árbol sabio.

Al parque misterioso le llamaban así porque en él había árboles que, además de saber hablar, eran músicos. En las noches de luna llena, se reunían todos alrededor de un estanque y tocaban diferentes instrumentos, así creaban bellas melodías que hacían bailar a los peces de colores que allí vivían. Nadie se explicaba aquel misterio.



Izan ere, parke misteriotsuko zuhaitzen artean bazen bat oso jakintsua. Haritza zen, oso dotorea eta sendoa bera. Berdin jasaten zuen udako berorik itogarriena eta neguko izotzik handiena. Ez zen inoiz kexatzen.

Danielek eta bere panpinek oso gogoko zuten haritzarekin hizketan aritzea.

Kontutxoak kontatzen zizkieten, eta baita galdera ugari egin ere jakin nahi zutenaren gainean.

Isil-isilik entzuten zien haritzak, hitza behin ere moztu gabe. Jakintsuak horrelakoak izan ohi dira: begiratu, entzun, ikertu eta pentsatu egiten dute. Eta dena patxada onean.

Batzuetan, Danielek eta panpinek besarkatu egiten zuten zuhaitza, eta, hala, lasaiago egoten laguntzen zien hark.

Entre todos los árboles del parque misterioso había uno que era muy sabio.

Era un roble majestuoso y fuerte que aguantaba muy bien el calor sofocante del verano y el frío glacial del invierno. Nunca se quejaba.

A Daniel y a sus muñecos les gustaba hablar con él, le contaban sus cosas y le hacían preguntas sobre lo que les interesaba saber.

Él les solía escuchar en silencio, sin interrumpirles ni una sola vez. Los árboles sabios son así: observan, escuchan, investigan y reflexionan. Todo lo hacen con calma.

A veces, Daniel y sus muñecos le abrazaban y así el árbol les ayudaba a estar más tranquilos.



Danielek Josetxo lagunari zer gertatzen zitzaion kontatu zionean, honela mintzatu zitzaion zuhaitza:

—Daniel maitea, zure buruaren barnean baduzu zerbait garrantzi handikoa eta baliotsua; GARUNA du izena.

—Gardena? —galdetu zuen Kinikok.

—Gardena ez! Ga-ru-na —erantzun zuen Patxapak, silabak garbi ahoskatuz.

Zuhaitzak bere azalpenarekin jarraitu zuen:

—Pentsatzen jartzen zarenean, garuna erabiltzen duzu. Hark esaten dio zure gorputzari zer egin behar duzun irakurtzen ari zarenean, zer korrika egiten duzunean, zer arnasa hartzen duzunean edo sudurrean azkura duzunean. GARUNARI ESKER DABIL DENA ONDO.

Imajina dezagun orain nire adaburua garuna dela —jarraitu zuen azalpenarekin zuhaitzak.

—Esponja bat dirudizu —esan zion Kinikok.

—Azalorre erraldoi bat ematen duzu — gaineratu zuen Patxapak.

—Ba, niri zera iruditzen zait, intxaur erraldoi baten antza duzula —bota zuen Danielek.

Después de escuchar lo que le contó Daniel sobre su amigo Jose, el árbol le dijo:

—Querido Daniel, dentro de tu cabeza hay algo muy importante y valioso que se llama CEREBRO.

—¿Celebro? —pregunto Kinico.

—No, ce-re-bro —respondió Pachapa silabeando.

El árbol continuó con su explicación:


—Cuando estás pensando, usas el cerebro, él le dice a tu cuerpo lo que tienes que hacer cuando lees, corres, respiras o te pica la nariz. EL CEREBRO HACE QUE TODO FUNCIONE.

Ahora vamos a imaginar que mi copa es un cerebro —continuó diciendo el árbol.

—Pareces una esponja —le dijo Kinico.

—¡Anda! Te pareces a una coliflor muy grande —añadió Pachapa.

—Pues a mí me parece que eres como una nuez gigante —opinó Daniel.



Zuhaitz jakintsuak azalpenarekin jarraitu zuen:

—Garunaren barruan hainbat zelula daude, NEURONAK izenekoak. Txiki-txikiak dira eta ugariak oso. Soilik mikroskopia bidez ikus ditzakegu.

Orain, segi imajinatzen intxaurra, esponja edo azalore erraldoia ematen duen adaburu horrek milaka eta milaka orritxo distiratsu dituela, bata bestearekin buztantxo baten bidez lotzen direnak. Buztantxo horiek antenak bezalakoak dira, batetik bestera mezuak pasatzen laguntzen dutenak. Horrela, sare bat osatzen dute.

—A! Nire amonak buru gainean ipintzen duenaren antzekoa —bota zuen Kinikok.

—Burutsua oso! —esan zion Patxapak, bizkarrean zapladatxo bat ematen zion bitartean.

—Ohartuko zineten orritxo horiek neuronak direla, ezta? —galdetu zien zuhaitzak adi-adi entzuten zeudenei. Eta horrela jarraitu zuen:

—Neuronek gure arazoak konpontzen laguntzen dute, eta gure barnean zein kanpoan gertatzen denaz kontura gaitezen laguntzen digute.

El árbol sabio continuó con su explicación:

—Dentro del cerebro hay unas células llamadas NEURONAS. Son muy, muy pequeñas y hay muchísimas. Sólo las podemos ver con el microscopio.


Ahora, seguid imaginando que dentro de esa nuez gigante, esponja o coliflor que forma mi copa tengo muchísimas hojitas muy brillantes que se conectan las unas con las otras a través de unos rabillos que son como antenas que permiten que los mensajes circulen por ellas. Así forman una red.

—¡Ah!, como la que se pone mi abuela en la cabeza —exclamó Kinico.

—Muy ocurrente —añadió Pachapa dándole una palmadita en la espalda.

—Os habréis dado cuenta de que esas hojitas son las neuronas, ¿verdad? —preguntó el árbol a sus oyentes. Y prosiguió:

—Ellas nos ayudan a resolver problemas y a darnos cuenta de lo que pasa dentro y fuera de nuestros cuerpos.



—Joko bat proposatuko dizuet, garbiago ikus dezazuen —jarraitu zuen haritzak—.Elkarri eskutik heldu, eta mezu bat pasako dio batak besteari.

Esan eta egin. Jarri ziren denak korroan, eta, belarrira gerturatuta, zuhaitzak zerbait esan zion Danieli. Danielek mezu bera errepikatu zion Patxapari, eta hark Kinikori.

—Beraz, orain denok garela onak —esan zuen Kinikok, erdi despistatuta.

—Neu-ro-nak-zuzendu zion Patxapak.

—Bai, hala da. Sare bat osatu dugu neuronak bagina bezala. Ez al da hala, zuhaitz laguna?
—esan zion Danielek.

—Halaxe da, bai. Primeran ulertu duzue —esan zuen haritzak.

Eta azalpenarekin jarraitu zuen:

—Para que lo entendáis mejor —continuó explicando el árbol— os propongo un juego. Vamos a agarrarnos por las manos y nos pasaremos un mensaje de uno a otro.

Dicho y hecho, todos formaron un corro. El árbol dijo algo a Daniel acercándose a su oído, Daniel le dijo lo mismo a Pachapa y este a Kiniko.

—O sea que ahora somos como las monas —dijo Kinico despistadamente.

—Neu-ro-nas —le corrigió Pachapa.

—Sí, hemos formado una red como si fuéramos neuronas, ¿verdad amigo árbol? —dijo Daniel.

—Efectivamente, lo habéis entendido muy bien —respondió el árbol— y siguió diciendo:



—Eta oso garrantzitsua da jakitea gure ahaleginarekin indartu dezakegula neuronen sarea.

—Nola?—galdetu zion Danielek, jakin-minez.

—Nik badakit —erantzun zuen Kinikok, burua alde batera eta bestera, arin-arin, mugitzen zuen bitartean.

Zuhaitzari grazia egin zion Kiniko ariketa haiek egiten ikusteak. Zorabiatzeko zorian zegoen, zuhaitzak esan zionean:

—Ez, Kiniko, ez. Nik esan nahi dudana da irakurtzea, idaztea, dantzan egitea, puzleak osatzea, abestiak eta poemak buruz ikastea eta horrelakoak ariketa onak direla neuronak indartzeko.


—Es muy importante que sepáis que podemos esforzarnos para que la red de neuronas se haga más fuerte.

—¿Cómo? —preguntó Daniel con curiosidad.

—Yo lo sé —respondió Kinico, comenzando a mover la cabeza de un lado a otro con rapidez.

Al árbol le hizo mucha gracia ver a Kinico haciendo aquellos ejercicios. Estaba a punto de marearse cuando el árbol le dijo:

—No, Kinico, yo me refiero a hacer cosas como leer, escribir, bailar, hacer puzles, aprender poemas o canciones de memoria...



Patxapa pentsakor gelditu zen aldi batean, eta, handik gutxira, poema bat asmatu zuela adierazi zien bere lagunei. Errezitatzeko eskatu zioten, eta, eztarria ondo garbitu ondoren, honela hasi zen:


—Neuronok, mugi zaitezte,
goazen, goazen lanera,
kolorezko arkatzekin
poema bat idaztera.
Errepikatu eta errepikatu
buruz dut ikasiko,
daukadan oroimena
sendoagoa izateko.

Txalo beroak jaso zituen Patxapak lagunen partetik, eta berehala hasi ziren denak poema hura buruz ikasten.

Pachapa se quedó pensando durante unos momentos y, poco después, les contó a sus amigos que se había inventado un poema. Estos le animaron a que lo recitara y él, aclarándose la garganta, dijo así:

—Espabilaos, neuronas
Vamos a entrar en acción
Con lápices de colores
Escribiré una canción
Después la repetiré
Y hasta me la aprenderé
Así mi buena memoria
Se hará más grande que ayer.

Todos aplaudieron calurosamente la invención de Pachapa y empezaron a memorizarlo.



Bat-batean, Kiniko dardarka hasi zen, baina ez hotzagatik baizik eta beldurragatik.

—Zergatik zaude dardarka, Kiniko? —galdetu zion Danielek.

—Ba, begira! Poema asko ikasten baditut, agian nire garuna gehiegi handituko da, eta belarrietatik aterako zaizkit neuronak.

—Ezinezkoa da hori, Kiniko —esan zion haritzak, maitekiro laztanduz.

De pronto, Kinico empezó a temblar, pero no de frío sino de miedo.

—¿Por qué tiemblas, Kinico? —le preguntó Daniel.

—Porque si me aprendo muchos poemas a lo mejor mi cerebro se hace tan grande que las neuronas se me salen por las orejas.

—Eso es imposible, Kinico, —le dijo el árbol acariciándole dulcemente.



Eta gauza gehiago adierazi zizkien:

—Beste hau ere jakin behar duzue: zenbaitetan neurona batzuk apur bat hondatuta egon ohi dira, eta sano daudenek ematen diete laguntza beharrezkoak diren funtzioak bete ditzaten.

—Zer onak diren neuronak —esan zuen Patxapak, harriturik.

—Hori, hori! Bonak, bonak —esan zuen ozen Kinikok, azentu katalana erabiliz.

—Beste neurona batzuk, nahiz eta sano egon, oso bizkor ibiltzen hasten dira, presa handia balute bezala —jarraitu zuen azalpenarekin zuhaitzak.

Imajina ezazue lehentxeago aipatu dizuedan orritxo talde bat haize bolada batek jotzen duela eta hara eta hona zabaltzen direla orritxoak, denak batera, beldurtuta baleude bezala, eta, ondorioz, beste orritxo batzuk ere beldurtu egiten direla.

Segi imajinatzen, bat-batean, gelditu egiten dela haize bolada eta orritxoak egoera normalera bueltatzen direla.

Y continuó contándoles más cosas:

—Tenéis que saber también que a veces hay neuronas que están un poco dañadas y las que están sanas les ayudan a hacer sus funciones.

—¡Qué buenas son las neuronas! —dijo Pachapa sorprendido.

—Eso, eso, bonas, bonas —añadió Kinico con acento catalán.

—También hay neuronas que, aunque estén sanas, comienzan a funcionar de forma rápida como si tuvieran mucha prisa —continuó diciendo el árbol.

Imaginad que es como si un grupo de esas hojitas de las que os he hablado reciben una fuerte ráfaga de aire, comienzan a moverse todas a la vez, como si estuvieran asustadas y terminan haciendo que otras hojitas también se asusten. Seguid imaginando que si el aire cesa, ellas vuelven a la normalidad.



—Eta begira, Daniel maitea —jarraitu zuen jakintsuak—, zure lagunari, Josetxori, antzeko zerbait gertatu zaio, haren “orritxoak” edo neuronak presaka eta era desordenatuan hasi zaizkio mugitzen. Gertaera horrek KRISI KONBULTSIBOA du izena.

Kasu askotan ez da berriz inoiz errepikatzen, baina beste kasu batzuetan gehiagotan errepikatzen da. Orduan, EPILEPSIA esaten dioguna izan liteke.

—Epi... zer? —jakin nahi izan zuen Kinikok.

—E-pi-lep-si-a —ahoskatu zuen Patxapak, ohitura zuen bezala—. Hitz grekoa da —gaineratu zuen.

Ai, zenbat gauza zekizkien panpina hark!

—Pues bien, querido Daniel —continuó diciendo el árbol sabio— a tu amigo Jose le ha pasado algo parecido, sus “hojitas” o neuronas han comenzado a moverse de una forma desordenada y rápida. Eso se llama CRISIS CONVULSIVA.

En muchos casos no vuelve a suceder pero en otros se repite más veces y puede ser lo que se llama EPILEPSIA.

—¿Epi...qué? —preguntó Kinico.

—E-pi-lep-sia —silabeó Pachapa, como de costumbre. Es una palabra griega —añadió.

¡Cuántas cosas sabía este muñeco!



E-PI-LEP-SIA

Zuhaitz jakintsuak emandako azalpenari esker, Daniel lasaiago sentitu zen. Eta zera pentsatu zuen: Josetxo lagunari berriz ere halako zerbait gertatzen bazitzaion, ondo gogoratuko zuela nola mugitzen zituen haize boladak orritxo haiek, neurona haiek, lagunaren garunean eta zergatik erortzen zen lurrera bere laguna eta lotan bezala geratu, baina, bazekien, geroxeago, dena pasatuko zitzaiola eta, berriro ere, jolasean arituko zela Josetxorekin.

—Eta, eupalesia kutsatzen al da? —galdetu zuen Kinikok, hitz berriak ikasteko zuen zailtasuna agerian utziz.

—E-pi-lep-si-a —zuzendu zion Patxapak, bigarren aldiz.

Gracias a las explicaciones del árbol sabio, Daniel estaba más tranquilo y pensó que si a su amigo Jose le volvía a pasar lo mismo, él se acordaría de la ráfaga de aire que en aquel momento movía sus hojitas o neuronas en su cerebro y eso hacía que se cayera al suelo y se quedara como dormido, pero que pronto pasaría y Jose volvería jugar con él.

—¿Y la epalesia se contagia? —preguntó Kinico con su dificultad de siempre para aprender palabras nuevas.

—E-pi-lep-sia —volvió a corregir Pachapa.



—Ez, ez, zaudete lasai! —erantzun zien zuhaitz jakintsuak—. EPILEPSIA EZ DA KUTSAKORRA. Pertsona ospetsu eta jakintsu asko dira epilepsia izan dutenak. Besteak beste, Alejandro Magno, duela urte asko eta asko bizi izan zen errege famatua, Juana de Arco, armada bat zuzendu zuen emakue ausarta edo Albert Einstein, pasa den mendeko zientzialaririk garrantzitsuena.

—Hogeigarren gizaldiko ospetsuena —gehitu zuen Patxapak, bere ezagupenak agerian jarri nahian.

—Nik, handitzen naizenean, zientzialaria izan nahi dut —adierazi zuen Danielek.

—Eta nik! —egin zuen oihu Patxapak, emozioz beterik.

—Hain ospetsuak diren pertsonaia horiek bizitza normala egiten zuten —esan zien jakintsuak—, epilepsia ez duten pertsonak egin dezaketenen antzekoa.


—No, tenéis que estar tranquilos —respondió el árbol sabio— LA EPILEPSIA NO SE CONTAGIA. Hay muchas personas importantes e inteligentes que la tenían, como Alejandro Magno, que fue un rey muy famoso que vivió hace muchísimos años, Juana de Arco, una mujer muy valiente que dirigió un ejército o Albert Einstein, un científico muy importante del siglo pasado.

—El más importante del siglo veinte —añadió Pachapa mostrando sus conocimientos.

—Yo, cuando sea mayor, quiero ser científico —dijo Daniel.


—¡Y yo! —exclamó emocionado Pachapa.

—Esos personajes tan importantes hacían una vida normal —continuó diciendo el árbol sabio— como la pueden hacer las personas que no tienen epilepsia.



$$\left(p + \frac{a}{v^2}\right) \cdot (v - b) = RT$$

$$\sqrt{2x^2 - 1} = x$$



—Baita ere jakin behar duzue —jarraitu zuen haritzak azalpenarekin— neuronak lasaitu daitezten eta era desordenatuan mugitu ez daitezten, medikamentu bat hartu behar dela. Neuropediatrek oso ondo dakite zer errezetatu behar den.

—Neuro... zer? —galdetu zuen Kinikok, ohi bezala.

—Neuropediatrak, Kiniko —erantzun zion zuhaitzak patxada onean—, eta azalpenarekin jarraitu zuen:


—Pediatriak dira, alegia, umeak tratatzen dituztenak, eta asko dakite nerbio sistemari buruz. Dakizuenez, nerbio sistema horretan daude garuna, neuronak eta beste hainbat gauza denborarekin ezagutuko dituzuenak.

—También tenéis que saber —siguió explicando el árbol— que para que las neuronas se calmen y dejen de moverse de manera desordenada hay que tomar una medicación que los neuropediatras saben recetar muy bien.

—¿Neuro...qué? —preguntó Kinico como de costumbre.

—Neuropediatras, Kinico —respondió el árbol con calma— y añadió:

—Son pediatras, es decir, médicos que tratan a los niños y a las niñas y que saben mucho sobre el sistema nervioso donde, como ya sabéis, están el cerebro, las neuronas y muchas cosas más que ya las iréis aprendiendo.



Neuropediatrek badakite zer-nolako probak egin behar diren ume batek epilepsia duen ala ez jakiteko. Proba horiek ez dute minik ematen.

Probarik garrantzitsuena elektroentzefalograma izeneko da.

—Aupa, Kiniko! Hor duzu beste hitz bat ikasteko —eman zizkion animoak Patxapak.

—Elek, elek, elek, tro, tro, tro... —saiatzen zen Kiniko, ondo ikasi nahian.

—Elektroentzefalogramak —jarraitu zuen zuhaitz jakintsuak— neuronen aktibitatea jasotzen du, eta, hari esker ikus ditzakegu zeintzuek jokutzen duten era desordenatuan.

Eta gogoratu haize boladarena —izan ziren bere azken hitzak.

Ellos y ellas también saben cuáles son las pruebas que hay que hacer para saber si un niño o una niña tienen epilepsia. Son pruebas que no duelen nada.


La más importante se llama electroencefalograma.

—¡Ánimo, Kinico!, otra palabra nueva para aprender —le animó Pachapa.

—Elec, elec, elec, tro, tro, tro... —repetía Kinico con ánimo de aprenderla.

—El electroencefalograma —continuó explicando el árbol sabio— recoge la actividad de las neuronas y gracias a él podemos ver las que se comportan de una forma desordenada.

Recodad la ráfaga de aire —terminó diciendo el árbol.



Danielek eta bere panpinek eskerrak eman zizkioten zuhaitz jakintsuari irakatsi zien guztiagatik, eta, enborra maitekiro besarkatu ondoren, agurtu egin zuten.

Laster itzuliko ziren gauza gehiago ikastera.

Danielek, etxera bidean, begiratu zuen zerura eta garunaren itxurako laino bat ikusi zuen, zeinak, mugituz zihoan heinean, izar distiratsu ugari uzten zituen bere azpian. Ematen zuen izarrak, handik goitik, keinuka ari zitzaizkiola.

Une hartan, hara non txori batzuk pasa ziren hegan eta... Danielen irudimenak aurpegia jarri zion irudiari.

Neuronak izarrez mozorrotu ziren.

Handik aurrera, bazuen Danielek beste istorio bat Josetxo bere lagunarekin partekatzeko.

Eta beti egongo zen prest laguntzeko.

Daniel y sus muñecos dieron las gracias al árbol sabio por todo lo que les había enseñado, se abrazaron a su tronco y se despidieron de él.

Pronto volverían a aprender más cosas.





Cuando se dirigían a casa, Daniel miró al cielo y vio una nube con forma de cerebro que, cuando se iba moviendo, dejaba ver debajo de ella a un grupo muy numeroso de estrellas brillantes. Era como si las estrellas le hicieran guiños desde allá arriba.

Curiosamente, unos pájaros pasaban por allí y...Daniel, con su imaginación, puso cara a la imagen.

Las neuronas se habían disfrazado de estrellas.



A partir de aquel momento, Daniel tenía otra historia más para compartir con su amigo Jose.

Siempre intentaría ayudarlo.



AMAIERA

FIN



8 Ospitalerako Ipuinak • Cuentos para el Hospital

Epilepsia duten txikiei laguntza eskaintzea du helburu ipuin honek.

Zuhaitz jakintsuaren irakaspenei esker, Danielek, ume protagonistak, hobeto ulertuko du zer gertatzen zaion bere lagun Josetxori, eta beti egongo da prest laguntzeko.

“Zuhaitzak santutegiak dira. Haiekin mintzatzan dakiena, haiei entzuten dakiena, egiaz jabetzen da.”

Hermann Hesse

Este cuento pretende ayudar a los niños y niñas que tienen epilepsia.

Gracias a las enseñanzas del árbol sabio, Daniel, el niño protagonista, podrá entender mejor qué le pasa a su amigo Jose y estará a su lado para ayudarle.

“Los árboles son santuarios. Quien sabe hablar con ellos, quien sabe escucharles, aprende la verdad.”

Hermann Hesse



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA SAILA
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco